



Eman hegoak euskarari



Denbora eta aukera: Irati Elorrieta

Laster izango da beste lanekin batera, maila berean, Irati Elorrietaren 'Neguko argiak' nobela

JON KORTAZAR



Oporretan Irati Elorrietaren 'Neguko argiak' ari naiz irakurtzen. Esku artean dut era berean gaztelaniaz agerturiko eta Jon Gerediagak eta Irati Elorrietak itzuli duten 'Luces de invierno' aldakia. Idazleak nobela honi esker irabazi zuen 2019an Euskadi Saria. Eta bere bideak zer pentsa eman dit azken egunotan.

Literatura zer ote den galdeztzen didatenean, azaldu behar dut, ohiturak eta halabeharrak eskatuta, badela (inoiz azaltzen ez dakidan zer den) hizkera sinbolikoa eta ez denotatiboa soilik aukeratu duen idazkera, hizkera jaso eta aberatsa erabili duen testua, denboraren iraganaren gainetik doan hizkera... Eta batzuetan gizartearen aukera ere badela pentsatu dut. Hain zuzen ere, gizartearen instituzioa, gizarteak badela edo nor den esateko behar duen praktika soziala.

Beste era batez esanda, denboran zehar egiten den aukera. Eta hori guztia Irati Elorrietaren nobelaren inguruan hausnartuz egin nahi nuke.

Emakumeak eta Euskadi Literatura Saria

Azken urteetan emakumeek idatzitako kontakizun lanek berebiziko sona lortu dute Euskadi Literatura Sarietan. Eider Rodriguezek irabazi zuen 2018an 'Bihotz handiegia' liburuari esker, Irati Elorrietak 2019an 'Neguko argiak' honi esker, eta 2020an Karmele Jaiok 'Aitaren etxea' nobelagatik.

Horrela tendentzia bi hautsi ziren: alde batetik, emakumeek Euskadi Literatura Saria 'noizbehinka' irabaztea (Lourdes Oñederrak jaso zuen 2000n eta Itxaro Bordak 2002an), eta bestetik, emakumeak Euskadi Literatura Sari hori batez ere haur eta gazte literatura moldean irabaztea:

Miren Agur Meabek hiru aldiz, Yolanda Arrietak Uxue Alberdik eta Leire Bilbaok behin.

Kontua da, baina, Eider Rodriguezen ipuin liburua eta Karmele Jaioren nobela, Katixa Agirrerren 'Amek ez dute' nobelarekin batera oso denbora laburrean itzuli zirela gaztelaniara. Errenteriako idazleak 2019aren bukaera aldean, eta Katixa Agirrek ere bere nobela, 'Las madres no', urte berean. Karmele Jaioren nobela 2020ko hasieran agertu zen gaztelaniaz. Eta oso denbora laburrean lortu zuten hirurek, ondo lortu ere, merezimen-

«Idazleak nobela honi esker irabazi zuen 2019an Euskadi Saria. Eta bere bideak zer pentsa eman dit azken egunotan»

duzko arrakasta. Espainiako egunkarietako kultur gehigarriek 'Babelia'k eta 'El Cultural'ek haien berri eman zuten.

Oso denbora laburrean, 2019ko bukaera eta 2020ko hasieran, hiru ezaugarri heldu ziren batera eta gure idazleen lanek itzal nagusia lortu zuten: Emakumeek idatziak izatea, Euskadi Saria lortu izatea eta arreta kritiko hedatua.

Emakume idazleak fikzioaren gailurrean

Hiru horri begiratua 2020an LAIDAK, gure Ikerketa Taldeak, lan berezia agertu zuen Veneziako Ca'Foscari Unibertsitatean eta neurri batean kanoa osatzen hasi ginen.

Urte bete geroago, 2002ko otsailaren 2an (2022/02/02an, alegia), 'El Cultural' gehigarriaren agerturiko artikulu batean, Jaime Cedillo poetak adierazi zuen euskal emakume narratzaileak fikzioaren gailurrean zirela: «Las narradoras

vascas, en la cima de la ficción» zirela baieztatuz. Artean non zen Irati Elorrieta? Bere lana pixka bat geroago agertu da liburu dendetan, 2021eko urrian. Eta ziur nago atzerapen horrengatik zenbait aukera galdu dituela. Agertu da bere itzulpena, bai, baina ez ditu gehigarri nagusien arreta lortu. Begiratu ditut egin dizkionten kritikak eta 'El Imparcial' en aurkitu dut bat, Murziako 'La Opinión' en bestea, eta Twieterren Edurne Portela bere editoreak agertu duen post bat.

Denbora eta aukera

Gure taldeak egindako ikerketaz gain badago beste bat Estatu Batuetako 'Symposium' aldizkarian agertu dena, eta hor 1980tik aurrera jaiotako idazleak hartuko dituzte kon-tuan. Noiz jaio zen Irati Elorrieta? 1979an, Hélas!, eta, hain juxtu ere, Hélas! bi aldiz. Hor ere marra txiki batengatik, kanpo.

Baina literaturan sinesten dugunok badakigu denboraren eta aukeraren gainetik testuak baduela zer esanik. Berak duela zer esanik handiena eta denbora eta aukera alde ez badiu izan, testuak mantendu duela bere irmotasuna eta laster izango dela beste lanekin batera, maila berean, Irati Elorrietaren 'Neguko argiak' nobela.

Bestiario poetikoa

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Nerea Arrien ez da hasiberria literaturan; Lizardi Saria, haur eta gazte literaturako obrak argitaratu ditu bai eta helduentzakoak ere: iaz 'Jende likidoa', errelatoen liburua, eta aurten poesia-liburua, 'Zoonomia', zeinarekin Xabier Lete VI. Poesia Saria eskuratu duen.

Berezko zoo bateko animaliak daude ikusgai poema-sorta honetan: 'Enamoratuena zooa', 'Amaren zooa', 'Kumeen zooa', 'Desioaren zooa', 'Homo zooa' eta 'Emearen zooa'. Horietan guztietan emakumezko identitatea nabarmentzen da, gaur egun izaera horren konnotazio eta rol anitzetara erreparaturik: lan merkatuko zein etxeko behargina, ama, maitalea, prekaritate ekonomikoa jasatea edo gizonen mende bizitzea, gizartearen indarreko balioak kritikatu-tuz. Bestiario oso pertsonal baten aurkezpena, idazleak ongi seinalatzen duena hasieran: «Bestia guztiei atek ireki nahi dizkiet,/ espezie oso bat iraungitzeaz dagoelako nire baitan». Baita azken

poeman ere: «Entzun/ astiro zahartu nahi ez duen aberea,/ entzun/ nire hezur arteko zootik ateratzen den emea». Ezin zaie, beraz, ukatu batasuna poemei, haien gida-lerroak ondo taxutu baititu autoreak.

Baliabide poetikoei dagokienez, errepikapenak, aliterazioak eta hitz-jokoak ongi zaindu ditu ironia eta dibertimenduzko efektuak lortuz. Horrekin batera, originaltasun handiko metaforak eta irudiak erabiltzen ditu Arriek. Animalien ezaugarriak abiapuntutzat harturik, gizakion jokamoldeekin paralelismoa egiten du, adibidez, erlauntzaren irudia Covidaren itxialdia adierazteko, edo hipopotamo eta hipotekaren arteko elkarketa: «hipotekamoa». Geruza asko daude poeman esanguran, eta, batzuetan, argi geratzen da animalia-aren eta ezaugarriaren arteko uztardura (elefantea eta oroitze ahalmena; mikak eta objektu distiratsuekiko lilura); besteetan, aitzitik, ostendu egiten da eta kriptikotasunean erortzeko arriskua antzeman daiteke.



ZOONOMIA
NEREA ARRIEN
Pamiela. 112 orr.
14 euro

Nongoa zara?

ARANTXA URRETABIZKAIA



Ulertzen dut aspaldian, jende gehiena bere udalerritik edo herrialdetik sekula ateratzen ez zen garai haietan, esanguratsua izan zitekeela jaioterria, askorentzat ezagutuko zuten paisaia bakarra. Sorterria aipatzea tribua aipatzea zen, tribuaren boterea, tribuaren marka. Non jaio, halakoa izan. Ez du axola bertan bost egun, bost urte edo bost hamarraldi pasa dituzun.

Ulertzen ez dudana gaur egun jaioterriari ematen zaion garrantzia da. Are gutxiago, besteak beste, kazetariok norbait aurkezterakoan jaiotegunaz gain jaioterria aipatzeko dugun tema. Zertarako da esanguratsua datu hori pertsona gehienok sorlekutik kanpo bizi garen honetan?

Adibiderik hurbilena jarriko dut. Do-

nostian sortu ninduten eta berrogei urte baino gehiago daramat Hondarribian bizitzen (kanpoan, ez batan ez bestean emandako tarte batzuk salbu). Nire bizitzaren erdia baino gehiago. Ez dut nire burua donostiarzat, aspalditik. Kanpotik begiratzen ditut aspaldian donostiarren, kanpotik ikusten eta miresten ditut. Kanpotik.

Eta, halere, jakin badakit askorentzat donostiarra naizela eta horrela izango naizela beti Hondarribian eta hemendik kanpo ere bai. Kanpotarra naiz aspalditik bizileku dudana honetan, kanpotar sentitzen naiz Donostiara noan bakoitzean. Zenbat urteren buruan bertakotzen da herritar bat?

Gaur egun guztiok dugu ainguratze ugari, anitza da guztion identitatea. Eta halere, nongoa zaren galdetzen dizute edo galdetu gabe hangotzat edo hemengotzat hartua izango zara, jaioterri suertatu zitzaizun horren eragina biderkatuz, zuretzat nondik norako horrekin garrantzi gutxi badu ere. Han sortu zinen, hangoa zara eta nor zaren adierazteko bi datu emango dira, beste edozeren aurretik, jaioteguna eta sorterria.

Non jaio zinen da galdera bat. Bestea litzateke nongoa zaren galdetzea, baina hori ez zaio ia inori bururatzten.